

EROSKIREN 2010EKO ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALEKO JARDUEREN URTEKARIA



AURKIBIDEA

ESKARMENTUA ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALEAN	05
EROSKIKO 2010EKO ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALEKO JARDUEREN LABURPENA	07
ELIKADURA OSASUNGARRIA BULTZATZEKO KANPAINAK	08
KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA ETA TREBAKUNTZA	12
BABESLETZAK ETA LANKIDETZAK	22
ELKARTASUN-EKINTZAK	26
MINUSBALIOTASUNAK DITUZTEN PERTSONEI LAGUNTZEA	30
KULTURA ETA KIROLA	34
2010EAN LORTUTAKO SARIAK ETA AINTZATESPENAK	36



ESKARMENTUA ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALEAN (EES)

ORAIN DELA 40 URTE BAINO GEHIAGO LANEAN HASI GINENETIK, ERAGILE AKTIBOA GARA GURE JARDUERA EGITEN DUGU LEKUETAN. EROSKIN USTE DUGU ENPRESA-PROIEKTU JASANGARRI BAT IZATEKO, EZ DIRELA KONTUAN IZAN BEHAR ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOKO HELBURUAK SOILIK; GIZARTE- ETA INGURUMEN-ALDERDIAK ERE KONTUAN HARTU BEHAR DIRA. BALANTZE HIRUKOITZA EGIN BEHAR DA.

EROSKI FUNDAZIOAREN ETA COFIP FUNTS ERRESERBATUAREN BIDEZ, URTERO, GURE IRABAZIEN % 10 EMATEN DUGU ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALAREN KONTZEPTUAN SARTZEN DIREN EKIMENETARAKO. INBERTSIO HORREKIN, GURE HELBURUA DA KONTSUMITZAILEAREN, KOMUNITATEAREN ETA INGURUMENAREN ALDE LAN EGITEA, INTERES SOZIALEI DAGOKIENEZ.

ALDE HORRETATIK, GURE LEHENTASUNETAKO BAT DA KONTSUMITZAILEA INFORMATZEA ETA TREBATZEA. HERRITARREI EGUNEROKO BIZITZARAKO TRESNA ERABILGARRIAK EMATEKO GURE GOGOAREN ERAKUSGARRI DIRA EROSKI CONSUMER PROIEKTUA, AZALPENERAKO GIDAK ETA LIBURUXKAK EGITEA ETA DIBULGAZIO-KANPAINAK MARTXAN JARTZEA. ELKARTASUNA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENAREKIKO ERRESPECTUA DIRA BESTE LAN-ILDO GARRANTZITSU BATZUK. ETA, GAINERA, GURE BALIABIDEETAKO BATZUK GORDETZEN DITUGU HIRUGARRENEKIN EKIMENAK BULTZATZEKO, BAI ERAKUNDE-MAILAN, BAI GIZARTE-MAILAN.



EROSKIKO 2010EKO EES-KO JARDUEREN LABURPENA

- > ELIKADURA OSASUNGARRIA BULTZATZEKO KANPAINAK
- > KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA ETA TREBAKUNTZA
- > BABESLETZAK ETA LANKIDETZAK
- > ELKARTASUN-EKINTZAK
- > MINUSBALIOTASUNAK DITUZTEN PERTSONEI LAGUNTZEA
- > KULTURA ETA KIROLA

ELIKADURA OSASUNGARRIA BULTZATZEKO KANPAINAK

GURE BEZEROEN OSASUNAZ ARDURATZEN GARA. HORI DELA ETA, HAINBAT EKINTZA ANTOLATZEN DITUGU KONTSUMITZAILEAK ELIKADURAREN ALORREAN HEZTEKO, JATEKO OHITURA OSASUNGARRIAK BULTZATZEN DITUGU, ETA DIETA OREKATUAGOA EGITEKO INFORMAZIO INTERESGARRIA EMATEN DIEGU.



POR TU CORAZÓN HEMOS ELIMINADO LAS GRASAS TRANS

ZURE BIHOTZAREN MESEDERAKO, TRANS GANTZAK KENDU DITUGU

BIHOTZAREN ESPAINIAKO
FUNDAZIOAREN
LANKIDETZAREKIN, 2010EAN,
PARTZIALKI HIDROGENATUTAKO
LANDARE-OLIOETATIK
DATOZEN TRANS GANTZEI
BURUZKO INFORMAZIO- ETA
KONTZIENTZIAZIO-KANPAINA
BAT JARRI GENUEN MARTXAN;
MARGARINAK, OPIL
INDUSTRIALEK, SNACK-EK ETA
PLATER PRESTATUEK IZATEN
DITUZTE HALAKO GANTZAK.

UNA RACIÓN DE ZUMO NATURAL
(1 vaso) CONTIENE

CALORÍAS	AZÚCARES	GRASA	GRASA SATURADA	SAL	FIBRA
84	0,7g	0,4g	0,1g	0g	2,5g
4%	<1%	<1%	0%	0%	10%

DE LA CANTIDAD DIARIA RECOMENDADA (CDO) PARA UN ADULTO


**SIN
GRASAS
TRANS***

Trans gantzak eragin negatiboa dute kolesterol-mailetan, eta, ondorioz, baita gure osasun kardiobaskularrean ere. Hori dela eta, ahal dela ez kontsumitzea gomendatzen da. Apustu handia egin du EROSKI alor horretan; izan ere, osagai hori marka propioko produktuetatik kendu duen espainiar banaketa-enpresa bakarra gara; hala, FOCO foroetan (kontsumitzaileek parte hartzeko foroak; horietan, beren iritzia ematen dute haiengan eragina duten gure jarduerako zenbait gairi buruz) kontsumitzaileek eskatutakoari —elikagai osasungarriagoak— erantzun diogu.

Ekimen horren berri emateko 2010ean martxan jarritako kanpaina urteko arrakastatsuenetako bat izan zen, eta gure komunikazio-kanal guztiak inplikatu zituen. Gure saltokietan 430.000 liburuxka banatu genituen, gutxi gorabehera. Gai horren inguruko informazio-lanarekin batera, eskaintzak egin ziren zenbait artikulutan, produktu-dastatzeak, lehiaketa bat, iragarkiak telebistan, eta EROSKI CONSUMERen eta beste zenbait hedabidetan ere agertu zen.

Guztira, 70.000 bezerok baino gehiagok parte hartu zuten kanpainan modu aktiboan. Gehienera (% 61) aholkularitza pertsonalizatua eman genien, baina beste askok (% 37) trans gantzik gabeko produktuak probatu ahal izan zituzten, eta ikusi zuten zaporea lehengo bera zela. Gure ekimenak arrakasta izan zuen, bai kontsumitzaile askok hartu zutelako parte, bai mezuaren ulertze-maila handia izan zelako.



ZURE OSASUNAREN ALDE, BEGIRATU ETA ERABILI EROSKI PRODUKTUEN NUTRIZIO-SEMAFOROA

DIETISTA ETA NUTRIZIONISTEN ESPAINIAKO ELKARTEAREN BERMEAREKIN, 2010EAN KANPAINA BAT JARRI GENUEN MARTXAN GURE BEZEROEK EROSKIREN PRODUKTUETAKO NUTRIZIO-SEMAFOROA ERABILTZEN IKAS ZEZATEN. TRESNA ERABILGARRIA IZAN DAITEKE DIETA OREKATUAGOA IZATEKO; IZAN ERE, NUTRIZIO-INFORMAZIOA EMATEN DUENEZ, EROSKETAK EGITEAN ETA MENUAK PRESTATZEAN PRODUKTUAK HOBETO AUKERATZEKO ETA KONBINATZEKO AUKERA EMATEN DU.

Un vaso de 250ml contiene / 250ml-ko baso bakoitzak
Un got de 250ml conté / Un vaso de 250ml contén

CALORÍAS	AZÚCARES	GRASA	GRASA SATURADA	SAL
116	12,0g	3,9g	2,7g	0,3g
6%	13%	6%	14%	5%

de la Cantidad Diaria Orientativa (CDO) para un adulto*
Pertsona heldu baintezako Eguneko Gutxi Gorabeherako Kopurua (EGKI)*
de la Quantitat Diaria Orientativa (QDO) per a un adult*
da Cantidade Diaria Orientativa (CDO) para un adulto*



Kontsumitzaileek, beren iritzia jakiteko EROSKI antolatu genituen FOCO foroaren bidez, eskatu ziguten ontzietan elikagaiei buruzko informazio gehiago jartzeko. Horri erantzuteko, 2007an jarri genuen abian nutrizio-etiketaren sistema hori, eta, geroztik, sistema hobetzen eta gero eta produktu gehiagotan jartzen segitu dugu. Gaur egun, gure elikagai guztiek nutrizio-semaforoa daramate (koloretako kode erraz horrek adierazten du elikagai bakoitzaren kantitatea altua, ertaina ala baxua den); nutrizio-ikonoek adierazten dute, adibidez, ea produktua egokia den zeliakoentzat edo ea gehitutako trans koipeak dituen.

2010ean egin genuen kanpaina pedagogikoan, informazio-liburuxka bat argitaratu genuen, eta dendetan zenbait ekimen jarri genituen martxan. Nutrizionista profesional bat izan zen gure saltokietan, eta nutrizio-semaforoa zertarako den eta nola erabiltzen den azaldu zuen, produktu eta adibide jakin batzuk erabilia. Aurkezpen horietan, ia 148.000 kontsumitzailek hartu zuten parte.

Horrekin batera, ekimen ibiltari bat antolatu genuen, eta gure hipermerkatu-sareko saltoki batzuetan izan zen. "Nutrizio-kalkulagailu" berritzaile bat izan zen 21 zentrotan, eta, hala, dieta orekatua egiten duten jakin ahal izan zuten parte-hartzaileek, beren dietan ohikoenak diren EROSKI produktuen barra-kodeak irakurtze hutsarekin. Guztira 15.253 lagunek probatu zuten kalkulagailu erabilgarri hori.

EROSKI CONSUMERek ere FOCO birtual bat jarri zuen martxan 2010ean, Interneteko kontsumitzaile eta erabiltzaile guztientzako iritzi-foro bat, nutrizio-etiketari buruz zer iritzi zuten jakiteko. Guztira, 4.500 kontsumitzailek baino gehiagok parte hartu zuten, eta, gehienek, uste izan zuten EROSKIren nutrizio-etiketak direla errazena (botoen % 66), erabilgarriena (% 67), ulergarriena (% 74) eta osoena (% 70). Lau parte-hartzailetatik hiruk adierazi zuten EROSKIren etiketak direla ulergarriena.

KONTSUMITZAILEA- RENTZAKO INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

GURE LAN-ILDOETAN GARRANTZITSUENETAKO BAT DA HERRITARREI BALIOKO INFORMAZIOA EMATEA, PRODUKTU ETA ZERBITZUAK KONTSUMITZEKO ETA KONTRATATZEKO GARAIAN ERABAKIAK HARTZEN LAGUNTZEKO. LAN HORRETAN, EROSKI CONSUMER ETA ORAIN DELA 30 URTE BAINO GEHIAGOTIK EGITEN DUEN LANA DIRA ERREFERENTZIA NAGUSIA, BAINA BADITU GU BESTE ZENBAIT KANPAINA BETERANO ETA EZAGUN ERE, ADIBIDEZ, INFOJUEGO, ETA HARK BESTE ARRAKASTA IZAN DUTEN BESTE ZENBAIT, BERRIAGOAK. ADIBIDEZ: MURRIZTU ZURE KARBONO-ARRASTOA.



EROSKI CONSUMER

PROIEKTU HONEKIN, LIDERRAK GARA DA ESTATUAN KONTSUMITZAILEA INFORMATZEKO ETA TREBATZEKO ALORREAN. EROSKI FUNDAZIOAREN BIDEZ ARGITARATZEN DA ALDIZKARIA, ETA HIRU HAMARKADA BAINO GEHIAGO DITU; 1998AN, WWW.CONSUMER.ES WEBGUNEA ERE MARTXAN JARRI GENUEN.

Herritarrei eguneroko bizitzako erabakietan asmatzen lagunduko dien informazioa sortzea eta hedatzea du EROSKI CONSUMERek. Elikadura eta bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea dira gure ardatz nagusietako bat, baina kontsumitzailearentzako oso interesgarriak diren beste zenbait gai ere lantzen ditugu; adibidez, ingurumena, elkartasuna, ekonomia eta teknologia berriak. Hainbat alorretako profesionalak osatutako talde handi baten lanaren emaitza da proiektu hau; kazetariak, nutrizionistak, zientzialariak, juristak, diseinatzaile grafikoak, Interneteko programatzaileak eta abar daude lantalde horretan.

Gure informazioaren kalitateak, sinesgarritasunak eta erabilgarritasunak bihurtu gaitu erreferente kontsumitzailea informatzeko eta trebatzeko alorrean. Hala erakusten dute zifrek eta kontsumitzaileen leialtasunak. Hilero, 625.000 lagunek irakurtzen dute gure aldizkaria, eta ia hiru milioi erabiltzailek bisitatzen dute webgunea. Gainera, 2010etik, buletin elektronikoen harpidedunak milioi bat baino gehiago dira. Lan horren aintzatespena erakusten dute hedabideek —2.000 alditan baino gehiagotan aipatu dute gure lana— eta jasotako sariek.

2010eko nobedadeen artean, aipagarria da iPhonera konektatu eta EROSKI CONSUMERen Santiago Bideko Gida bistaratzeko aplikazioa. Beste aurrerapauso bat ematea erabaki genuen on line gida horrek —gai horri buruzko munduko gida bisitatuena iaz, ia milioi eta erdi erabiltzaileekin—, urrats bat gehiago egitea erabaki zuen, eta, Xacobeo Urtean, haren edukiak kontsultatzeko modu berri bat aurkeztu zuen, erromesek ibilaldia hasi aurretik edo egiten ari direla behar duten informazioa are eskuragarriago egiteko.



INFOJUEGO: ASMA EZAZU JOSTAILUEKIN.

**GABONETAN, HAMALAU GARREN
INFOJUEGO JARRI GENUEN
MARTXAN. AZKEN URTEOTAN
EGIN DEN KANPAINA HORREKIN,
HAURENTZAKO OPARIAK
AUKERATZEKO GARAIAN
EROSKETA ARDURATSUA
EGITEKO BEHAR DEN
INFORMAZIO GUZTIA EMATEN
DIOGU KONTSUMITZAILEARI:
JOSTAILU TRADIZIONALEI,
BIDEO-JOKOEI, TELEFONIA
MUGIKORRARI EDO BESTE
ZENBAIT GAILURI DAGOKIENA.**

Pedagogoen aholkularitza eskatzen dute, batik bat, gure bezeroek; izan ere, bana-banako arreta jasotzen dute, eta erantzun pertsonalizatua beren galdera guztietarako. Guztira, 122.838 bezero artatu zituzten 2010ean ia ehun EROSKI hipermerkatutan egon ziren 103 aholkulariek. Dendetan 5.000 ordu baino gehiagoan eman zuten aholkularitza, gure pedagogoen artatutako kontsultak (4.678 ordu) eta emandako tailerrak (342 ordu) kontuan hartuta.

Bezero gehienak hiru urtez beherako haurren gurasoak dira; umeek oraindik ez diete eskatzen modan dagoen edo telebistan iragartzen den jostailurik. Kontsulten ehunekoia egonkorra da: % 25 bideo-jokoei buruzkoak dira, eta % 75, ohiko jostailuei buruzkoak.

Azken urte honetan, dibulgazio-erdiak garatu ziren, 100 orri baino gehiagoko gida pedagogiko baten bidez. Doan eskuratu zitezkeen gure hipermerkatuetako jostailuen eta bideo-jokoen ataletan. 250.000 ale argitaratu genituen, eta balorazio ona egin zuten kontsumitzaileek.

—“OSO ONDO IRUDITZEN
ZAIT AHOLKULARITZA
EMATEKO NORBAIT EGOTEA.
ASKO ESKERTZEN DUT,
LAGUNGARRIA DELAKO
JAKITEKO GURE SEME-
ALABEK ESKATU DUTENA
BEREN ADINERAKO EGOKIA
DEN ALA EZ.”

EROSKIKO BEZEROA

—“BIDEO-JOKOEI BURUZ,
NORMALEAN, GALDETZEN
DIGUTE ZER BORTIZKERIA-
MAILA DUTEN, ETA ADIN
JAKIN BATERAKO EGOKIAK
DIREN ALA EZ. BEZERO
BATZUEK NAHASTE HANDIA
DUTE PLATAFORMA, MARKA
ETA ABARREKIN.”

INFOJUEGOKO AHOLKULARIA



MURRIZTU ZURE CO₂-AZTARNA

EGITEN DUGUN GUZTIAK
ARRASTOA UZTEN DU
INGURUNEAN, CO₂-EMISIOEN
ERAN. EROSKIN, GUREA
GERO ETA TXIKIAGO
IZATEKO LAN EGITEN DUGU,
ONTZIAK HOBETUZ, ZORRO
BERRERABILGARRIAK
ERABILIZ ETA ZENBAIT
NEURRI HARTUZ, BAI GURE
DENDETAN, BAI GURE
GARRAIOBIDEETAN.



Gure bezeroek ere bide berean aurrera egitea nahi dugu; horretarako, 2010ean kanpaina hau jarri genuen martxan ECODESekin (Ekologia eta Garapenerako Fundazioa). Ekimen horren helburu garrantzitsuenetako bat zen kontsumitzailea informatzeko eta trebatzeko gure lanarekin aurrera jarraitzea; oraingoan, jasagarritasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren alorretan.

Bestalde, ekitaldi dibertigarri bat egin genuen hipermerkatuetan, eta ekitaldi horrek aukera eman zien bezeroei haien eguneroko ohiturek dakartzaten karbono-emisioak ezagutzeko, xaboi-buribilekin show baten bidez kontzeptu berriak ikasteko, haien CO₂-aztarna murrizteko gomendioak ezagutzeko eta ideia berriak proposatzeko. Emisioak murrizteko bat-bateko 80 proposamen jaso genituen.

Ekitaldi horietan 198.000 kontsumitzailek baino gehiagok hartu zuten parte. Burbuilen show-aren formatu ludiko-pedagogikoak bezero-kopuru oso handi batengana hurbiltzeko aukera eman zigun, halako ikuskizunak ikusten geratzen direnengana, hain zuzen. Haietatik ia 45.000 laguni aurrez aurre eman zitzaien aholkularitza, eta 5.000 bat lagunek erabili zituzten kalkulagailuak beren jarduerak ingurumenean zer eragin duen jakiteko.

GURE BEZEROEN PROPOSAMENAK, CO₂-EMISIOAK MURRIZTEKO:

—**MATERIAL BIRZIKLATUEKIN EGINDAKO PRODUKTUAK EROSTEA: OIHAL BIRZIKLATUEKIN EGINDAKO PELUXEAK ETA TXOTXONGILOAK, ESATERAKO.**

—**A MOTAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK ERABILTzea (EKOLOGIKOAK DIRA, ENERGIA GUTXIAGO KONTSUMITZEN BAITUTE).**

—**TELEBISTEN, DVD-IRAKURGAILUEN ETA HALAKOEN ARGIAK ITZALTzea.**

—**BIZIKLETAN EDO GARRAIO PUBLIKOAN IBILTzea.**

—**ETXEAN ZENBAIT PRODUKTU BERRERABILTzea. ADIBIDEZ: OGI BIRRINDUA.**

—**EZ ERABILTzea SPRAY BIDEZKO DESODORANTERIK, EZ ETA LAKARIK ERE.**

—**GARAIAK GARAIAK FRUTA KONTSUMITzea.**

—**FAMILIAKO KIDE BAKOITZAK URTEAN ZUHAITZ BAT LANDATzea.**

—**ESKOLAN, GAZTEAK TREBATzea BIRZIKLATZEAREN INGURUAN. HAURRAK DIRA GAKOA FAMILIAK BIRZIKLA DEZAN ETA INGURUMENEAN INTERESA IZAN DEZAN.**

... ETA, HALA, 80 ADIBIDE, KONTSUMITZAILEEK PROPOSATUAK BEREN KARBONO-AZTARNA MURRIZTEKO.

ESKERRIK ASKO GUZTIOI PARTE HARTZEAGATIK!



EES ORRIAK

**JASANGARRITASUNAREKIKO
KONPROMISOA INDARTU
DU EROSKIK, INGURUMEN-
BERMEAK EMATEN DITUZTEN
PRODUKTUEN ALDE
EGINDA ETA BEZEROAK
KONTZIENTZIATUTA
INGURUMENA
ERRESPESTATZEN DUTEN
KONTSUMO-OHITURAK
HARTZEKO.**



Horren adibide garbia dira EES zigilua duten orri ekologikoak; baso-baliabideen erabilera arduratsua bermatzen dute, bai fabrikazioan, bai merkaturatzean. WWF/Adenaren laguntzarekin, horiei buruzko dibulgazio-kanpaina bat jarri genuen martxan 2010ean gure hipermerkatuetan. 425.000 informazio-liburuxka banatu genituen; lantegiak antolatu genituen monitore espezializatuekin Santanderren eta Terrassan, eta ia 3.300 kontsumitzailek hartu zuten parte. "Naturari gutunak" lehiaketa ere egin zen, lehen aldiz. Lehiaketa horretan, 6.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte, gutunak bidaliz edo epaimahaikide gisa, <http://www.eroski.es/> webgunearen bitartez.

GUTUN IRABAZLEETAKO ZATIAK:

"... VICTOR NAIZ, ETA 11 URTE DITUT (...) IRAKASLE ZORAGARRIA DAUKAT, ASKO HITZ EGITEN DIGU ZUTAZ, BADA KIZU, LIBURUAK DIRELA ETA; ETA ZU, BATIK BAT, INGURUNEOAN ZAUDE (...). A. BIDE BATEZ, EMAN ESKUMUINAK NIRE LAGUN IBAIARI. AZKENA IKUSI NUENEAN, BAZIRUDIEN HITZ POLITAK ESATEN ZIKKIDALA BELARRIRA. GORAINZIAK ZUHAITZEI ERE; PENTSATZEN DUT ORAIN HOSTOEN UDAZKEN-KOLOREZ, KOLORE GORRI-HORI POLITEZ, BETEKO ZUTELA LURRA. AZKENIK, ESAN MENDIARI HAREN FALTA SUMATZEN DUDALA HEMEN, HIRIAN...".
9-12 URTEKOEN KATEGORIA.

"NIK EGUNERO BIRZIKLATZEN DUT, ARGIAK ITZALTZEN DITUT BEHAR EZ DIRENEAN, ETA URAREN TXORROTA IXTEN DUT HORTZAK GARBITZEAN. ZERRENDA LUZEA EGIN NEZAKE, EGIN BEHAR DIREN ETA GEHIENEK AHAZTEN DITUZTEN GAUZEKIN. EZ ZAIE INPORTA BIHARKOA, MOMENTUA BIZITZEA BAKARRIK DUTE BURUAN, TOPERA GOZATZEA, ETA EZER EZ ZAIE AXOLA, EZ ZAIZKIE AXOLA HORREN ONDORIOAK. ORDUAN, ZERGATIK HALAKO HIPOKRESIA? (...) MILAKA BATZUEK EZ DUTELAKO MUNDUA KONPONDUKO MILIOI BATZUEK EZER EGITEN EZ BADUTE, IRAKURRI, ENTZUN ETA ABAR EGIN ARREN...".
13-15 URTEKOEN KATEGORIA.

"NATURA MAITEA: AGIAN, BATZUETAN EZ GARA JARTZEN ZUREKIN PENTSATZEN, BAINA EGUNETIK EGUNERA GEHIAGO JABETZEN NAIZ BIZITZAN DUZUN GARRANTZIAZ. HOBETO ESANDA, JABETZEN NAIZ ZU ZARELA BIZIA. JENDE ASKOK EZ DIO BEHATZEN ZURE EDERTASUNARI, ZURE KEMENARI, ZURE HANDITASUNARI; BOTERE KRUEL ETXAK GUZTIOK HARTZEN GAITU MENDEAN".
16-18 URTEKOEN KATEGORIA.

"BERROGEITA HAMARREKO HAMARKADAN SARTU NAIZ GAUR, ETA KONTZIENTZIA-AZTERKETA EGIN DUT: NIRE BURUA SALATZEN DUT "MUNDU GARATU" HONETAKO KIDEA DELAKO; EGUZKITAKO BETAURREKOAK DARABILTZA BETI. ERREALTATE DESEROSOAREN ERREFLEXU TXIKIENAK ERE KALTETU EZ DEZAN HAREN BEGI-NINI HAUSKORRA. NIRE BURUA SALATZEN DUT "LEHEN MUNDUKO" KIDE IZATEAGATIK: KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO DISKURTSO ANTZUZ BETETZEN DIRA, ETA ZOROTZAT HARTZEN ZAITUZTE ZEURE BURUA DEFENDATZEKO BARRUAK ASTINTZEN DITUZUNEAN ETA RICHTER JAUNA DARDARKA JARTZEN DUZUNEAN, EDO TSUMANI BELDURGARRIAK MARRAZTEN DITUZUNEAN ZURE BESO AMAIEZINAK LUZATUZ, EDO, BESTERIK GABE, NEGAR-ZOTINKA HASTEN ZARENEAN ETA ZURE MALKOEK BESTE UHOLDE BAT ERAGITEN DUTENEAN".
HELDUEN KATEGORIA.



POL TSA BERRE- RABILGARRIAK

PLASTIKOZKO POL TSAK GURE BIZITZETAN SARTU ZIRENEAN, IRAULTZA HANDIA IZAN ZIREN. EROSOAK ZIREN, ERABILGARRIAK, ETA, ITXURA BATEAN, DOAKOAK. GAUR EGUN, BADA KIGU POL TSA HORIEK ZER PREZIO DUTEN, OSO KALTEGARRIAK BATIRA INGURUMENERAKO.



— POL TSA BERRERABILGARRI BAKAR BATEK ERABILERA BAKARREKO 125 POL TSA KONTSUMITZEA SAIHESTU DEZAKE.

— POL TSA BERRERABILGARRIAREN INGURUMEN-INKAKTUA OHIKO PLASTIKOZKO POL TSA BAINO BOST ALDIZ TXIKIAGO DA.

— ERABILTZEN EZ DUGUN PLASTIKOZKO POL TSA BAKOITZEKO, 20 GRAMO CO₂ AURREZTEN DIZKIOGU INGURUMENARI.

Plastikozko poltsen erabilera da azken urteotan kontzientzia sozial handiena sortu duen gaietako bat —naturarako kaltegarriak dira—. EROSKI izan zen poltsa berrerabilgarriak banatu zituen lehen banaketa-enpresa; beraz, urte asko daramatzagu alor horretan lanean. Horren berri emateko eta kontsumitzaileak sentsibilizatzeko eguneroko erosketetan poltsa berrerabilgarriak erabili behar diren inguruan, kanpaina berri bat jarri genuen martxan 2010ean WWF/Adenarekin batera. Ia 6 milioi eta erdi liburuxka argitaratu genituen.



STOP IVA

Ekonomia-arloan, urteko mugarrietako bat izan zen BEZaren igoera; kontsumitzaile guztiei eragin zien. Zerga-tipo berriak 2010eko uztailaren indarrean sartzearekin batera, EROSKI In informazio-kanpaina bat jarri genuen martxan, herritar guztientzat, oro har. Totem eta azalpen-liburuxken bidez egin zen ekimena, eta dibulgazio-izaera izan zuen. Zenbait oinarritzko kontzeptu "freskatze" jarri zen martxan (zer da BEZa? zer mota daude?), eta, horrez gain, erosketetan ohikoenak diren produktu etako batzuek zer BEZ-tasa duten jakinarazi nahi zen. 380.000 liburuxka argitaratu ziren.

BABESLETZAK ETA LANKIDETZAK

2010EAN, GURE BALIABIDEEN ZATI BAT ERABILI GENUEN BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZAN ARITZEKO, GIZARTE-INTERESEKO HELBURUAK BETETZEKO, BETIERE. EKITALDIAK BABESTU GENITUEN, ETA HAINBAT ERATAKO FERIA ETA BILTZARRETAN HARTU GENUEN PARTE.



WWF/ADENA ETA EROSKI

2010ean, WWF/Adenarekin lankidetzan aritu ginen ingurumen-arloko kanpainetan; adibidez, poltsa berrerabilgarrien erabilera edo kontsumo arduratsua bultzatzea, EES zigilua duten produktuen bidez.

Gainera, hiru urterako hitzarmen bat sinatu genuen, arrantza-eredu jasangarriago bat sustatzeko. Hitzarmen horren bidez, EROSKIren arrain eta itsaskien hornidura-iturri nagusiak ebaluatzen ari gara (kasu batzuetan, dagoeneko ari gara lanean dagozkien ziurtagiriak —MSC— dituzten hornitzaileekin), ziurtagiri horiek eskuratzeko hautagai izan daitezkeen hornitzaileak katalogatuko ditugu, eta ordezko iturriak bilatuko ditugu, beharrezkoa bada.

Hala, tamaina horretako konpromiso bat hartzen duen Espainiako lehenengo banatzailea bihurtzen gara; hori ohikoa da jada industrializatutako beste herrialde batzuetan. Horri esker, aurrerapauso bat eman dugu merkaturatzen ditugun produktuen jatorria bermatzeko, eta erakutsi dugu jasangarritasun eta ardurarako bidean ez ditugula nahasten sartzen bezeroak soilik, baita gure hornitzaileak eta enpresa bera ere.

ZELIAKOEN NAZIOARTEKO BILTZARRA

Zeliakoen nazioarteko biltzarra babestu genuen —Valentzian egin zen, irailean, Europako Zeliakoen Elkartearen Elkartearen batzar orokorraren barnean—. Horrez gain, komunikazio-euskarrietan ere izan ginen, eta EROSKIren “Glutenik gabeko dietaren alde” programaren azalpen-liburuxka bat gehitu genuen parte-hartzaileen txostenean. Antolatzaileen arabera, 350 lagun izan ziren biltzarrean, Espainiako eta Europako zeliakoen elkarteetako buruak.

ZELIAKIAREN MUNDU EGUNA

Zeliakiaren Mundu Eguna zela eta —maiatzaren 27an ospatzen da—, elikadura-alergieiei eta EROSKIren nutrizio-etiketari buruzko artikulu bat eta Zeliakoen Elkartearen Espainiako Federazioaren gerenteari egindako elkarrizketa bat argitaratu genituen EROSKI CONSUMERen. Horrez gain, glutenik gabeko produktuak eman genizkion Euskadiko Zeliakoen Elkarteari urteko batzarrerako, eta hizketaldi bat antolatu genuen Santanderko EROSKI hipermerkatuan.

BIHOTZAREN ESPAINIAKO FUNDAZIOA ETA EROSKI

EROSKIk Bihotzaren Mundu Eguna babestu zuen (Madril, 2010eko iraila), Bihotzaren Espainiako Fundazioak antolatua. Maratoia izan zen egun horretako ekintza nagusia, eta jende ugari elkartu zuen. Horrez gain, Bihotzaren Astean parte hartu genuen; ekitaldi horrek zazpi hiri igaro zituen (Toledo, Madril, Oviedo, Santiago, Merida, Malaga eta Mallorca), eta 46.000 parte-hartzaile izan zituen guztira. Gure stand-ean, dibulgazio-jarduerak antolatu genituen, informazio-liburuxkak banatu genituen, eta haur eta helduentzako elikadura-tailerrak jarri genituen martxan. EROSKIren nutrizio- eta ongizate-behatokian egindako txostenak argitaratu genituen, bai eta EROSKI zentroetan urtean zehar egindako kanpainen emaitzak ere,



Bihotzaren Espainiako Fundazioaren alizkarian (Corazón&Salud) eta webgunean (www.fundaciondelcorazon.com).

BIHOTZ BIZI-CORAZÓN VIVO ETA EROSKI

Urteak daramatzagu Gaixotasun Kardiobaskularrei buruz Informatzeko eta Prebenitzeko Elkartearekin (Bihotz Bizi-Corazón Vivo) lankidetzan, Gosari Kardio-osasungarriak kanpainen. Ekimen hori Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan egiten da, eta elikadurari ea bizitza aktiboari dagozkien bizi-ohitura osasungarriak eskola-mundura eramatea du helburu. Horretarako, gosari orekatua egiteko produktu egokiak ematen ditu EROSKI.

AEDN – EROSKI HITZARMENA

Urtebeterako hitzarmena sinatu genuen Espainiako Dietista Elkartearekin, elikadura osasungarria egiteko irizpideak hedatzeko. Hitzarmenean aurreikusitua zen "Zure osasunaren alde, begiratu eta erabili EROSKI produktuen nutrizio-semaforoa" kanpainen parte hartzea AEDNk.

DIETA MEDITERRANEOAREN TOPAKETA

IFEMA – MADRILen urrian egin zen Dieta Mediterraneoaren II. topaketan izan ginen. Gure stand-eant, nutrizio-semaforoaren eta nutrizio-kalkulagailuaren berri eman genuen, trans gantzak gabeko produktuen dastatzeak egin genituen, eta osasuna eta nutrizioari buruzko zenbait hizketaldi antolatu genituen. Horrez gain, anoa-poltsak banatu genituen Dieta Medite-

rraneoaren aldeko Maratoian —itxiera-egunean egin zen—. Antolatzaileen arabera, 60.000 lagun izan ziren lau eguneko ekitaldi horretan.

FESNADEN BILTZARRA

Nutrizioaren Espainiako Federazioen (FESNAD) II. Biltzarrean ere egon ginen, eta Iñaki Larrabeiti EROSKIko Kalitateko Zuzendariak hartu zuen parte, nutrizio-etiketei buruzko mahai-inguru batean.

PERTSONA GIZENEN EGUNA

Gizentasunaren Azterketarako Espainiako Elkarteak abenduan antolatu zuen jardunaldi hori, eta gu babesle izan ginen.

KONTSUMO-FERIAK

Martxoaren 15etik 18ra, Kontsumitzailearen Mundu Eguna zela-eta Molina de Seguran antolatutako ferian parte hartu zuen EROSKI. Ekitaldi horretan stand bat jarri genuen, eta hainbat gai landu genituen: poltsa berrerabilgarriak, trans gantzak kentzea, nutrizio-semaforoa, EES produktuak... Antolatzaileen arabera, 11.000 lagun igaro ziren EROSKIren stand-etik.

Gainera, ekainean Pontevedran izan zen antzeko ekitaldi batean ere izan ginen. Silledan egin zen Kontsumo Ferian parte hartu genuen, kontsumitzaileekin hizketaldiak eginez eta osasunari eta nutrizioari buruzko liburuxkak banatuz. Antolatzaileen arabera, 15.000 kontsumitzaile izan ziren, gutxi gorabehera, ekitaldi horretan.

MUGIKORTASUNAREN EGUNA DONOSTIAN

Moby Bike Eguna egin zen urriaren 31n Gipuzkoako hiriburuan, eta bizikletaren erabilera bultzatu zuen, garraiobide jasangarri eta ingurumenarekiko errespetudun gisa. Minbiziaren aurka egiten duen elkarte baten bidez, EROSKIIn publikoarentzako eskurgarri jarri genituen zenbait bizikleta elektriko, etxez etxeko banaketarako erabiltzen ditugunak, hain zuzen, jendeak probatu zitzen.

HITZARMENA MUNDUKO NEKAZARITZA FUNTSAREKIN

2010ean, beste behin ere, erakunde horrekiko hitzarmena berri zuten. Gure ekarpenarekin, bere helburuak erdiesten laguntzen diogu Munduko Nekazaritza Funtsari, nekazaritza-munduko garapen-proiektuak, eta, bereziki, familia-nekazaritzako ereduak bultzatuz.

ELKARTASUN-EKINTZAK

BEHAR HANDIENA DUTENEKIKO KONPROMISOA ERE EZ DUGU AHAZTEN GURE EGUNEROKO BIZITZAN. HORREGATIK, EROSKIN ZENBAIT FEDERAZIO ETA ERAKUNDE SOLIDARIOREKIN LANKIDETZAN ARITZEN GARA, GURE HARRIKOSKORRA EKARTZEKO HAINBAT ARLOTARA, ADIBIDEZ, ELIKAGAIK EMATEA JANTOKI SOZIALETARAKO EDO NAZIOARTEKO KOOPERAZIOA.



ELIKAGAI BANKUA

2010eko ekitaldian, 2.700 tona produktu baino gehiago eman dizkiogu Espainiako Elikagai Bankuen Federazioari (FESBAL).

Duela 14 urtez geroztik ohikoa izan den bezala, elikagaien bi bilketa-kanpaina jarri genituen martxan, eta kontsumitzaileek beren elkartasuna erakutsi zuten, gure dendetan beren erosketaren zati bat emanez behartsuenentzat. Ekainean, ia 55.000 kilo jaso genituen. Azken urteotako udako kanpainarik arrakastatsuenaren izan da, eta Elikagai Bankuak espresuki zoriondu gintuen. Gabonetan, produktubilketarekin batera, kanpaina solidario jakin bat egin genuen, eta harrera oso ona izan zuen gure bezeroen artean. Guztira, 175.000 kilo elikagai bildu genituen.

Zenbateko horiei gehitu behar zaizkie dendetan zuzenean ematen ditugun produktuak: 625.000 kilo baino gehiago lermatan (ontzian kolpeak dituzten produktuak eta abar), eta, bigarren urtez, 1.800 tona baino gehiago produktu fresko eta elikagaitan. Halako produktuak fresko mantentzeko, egunero egin behar dira entregak, eta EROSKIren freskotasan-konpromisoari esker soilik da hori posible. Iraungitze-data iritsi aurretik kentzen ditugu salmentatik jogurtak, arrautzak eta moldeko ogia, eta, hala, ezinbesteko denbora-tarteak ditugu emandako produktuak kalitate eta segurtasuneko kondizio ezin hobetan irits daitezten.

EGUTEGI SOLIDARIOA

Gabonetara begira, 2011ko Egutegi Solidarioa jarri genuen salgai, euro baten truke. Kutxetan egin genuen kanpaina hori, azaroko bigarren hamabostaldian hasi, eta urtarrilaren amaierara arte. Irabazitako dirua Elikagai Bankurako izan zen, oso-osorik. Ekarpena produktu gisa egin genuen, probintzia bakoitzeko jantoki sozial nagusietan banatzeko, eta, hala, kontsumitzaileek dendan zuzenean emandako elikagai-bilketaren osagarri izan zen.

PRODUKTU-EMAITZA

2010ean, milaka lagunek (batik bat haurrak, emakumeak eta adineko pertsonak) jostailuak, oinetakoak eta arropa jaso zituzten, 162.700 euroko baliokoak, EROSKIren eskutik. Munduko Haurrak Federazioarekin eta beste zenbait elkarterekin lankidetzan aritzen gara, eta produktu berriak ematen dizkiegu, EROSKI hipermerkatuetakoak eta erosketa-zentralekoak; denboraldiko soberakinak edo zentroetako gama-definizioetarako erabilitako laginak izaten dira.

BOLUNTARIOTZA KORPORATIBOA

MUNDUKIDEREkin lankidetzaz hitzarmena dugu nazioarteko kooperazioaren alorrean: banaketan eta merkaturatzean dugun esperientzia zabaltzen dugu MUNDUKIDEREkin interkooperazio-proiektuetan parte hartzen duten pertsona eta kolektiboen artean.

2010eko maiatzetik 2011ko apirilera bitartean, EROSKIko lankide bat Brasilen izan zen, Paranako erdialde-mendebaldeko MST asentatu eta kanpatuen beharrei erantzuna emateko supermerkatu-sare bat sortzeko proiektuan lan egiteko.



Hainbat ikuspegi landu ziren (komertziala, soziala, erosketak eta marka propioak), eta kooperatibaren formula sustatu zen helburu horiek erdiesteko balioko eredu gisa.

ESKOLA-MATERIALAREN EMAITZA SAHARARAKO

Elorrioko Udalarekin lankidetzan aritu ginen (han du egoitza soziala EROSKIK) Saharako haurrentzako eskola-materiala emateko kanpaina batean. Halako ekimenei esker, haur horiek motxilak, koadernoak eta arkatzak dituzte eskolara joateko eta beren hezkuntza-prozesua kondizio hobetan aurrera eramateko.

MUGARIK GABEKO MEDIKUAK

Enpresa Solidarioen Zirkuluko bazkide gara, eta urteak daramatzagu Larrialdi Funtsari aldizkako ekarpenak egiten; funts horri esker, Mugarrik Gabeko Medikuek elkarteak berehala esku har dezake hondamendi naturalek, epidemiek, goseteek, gatazka armatuek edo biztanleriaren desplazamendu handiek eragindako larrialdietan.

Nazioarteko erakunde mediko-humanitarioa da Mugarrik Gabeko Medikuek, eta egoera txarrean dagoen jendea eta hondamendi eta gatazka armatuen biktimak artatzen ditu, inongo diskriminaziorik egin gabe arraza, erlijioa edo ideologia politikoa dela eta.

INTERMON OXFAM

Hirugarren urtez, Gabonetarako zorion-txartel digitala aukeratu dugu, ingurumen-aurrezki handia dakarrelako. Bestalde, Intermón Oxfami laguntzen jarraitu dugu, Intermón

Oxfamen Bizibide Jasangarrien Programako proiektu baten bidez. 2010ean, Tanzanian gosearen aurka egiteko izan zen.

Luzera begira, Intermón Oxfamen helburu nagusia da beharra duten herrietako elikadura bermatzea, biztanleen ekoizpen- eta elkartze-gaitasunak bultzatuz, urte osoan elikagaiak izateko eta diru-sarrera egonkorak sortzeko. Horretarako, zenbait proiektu ditu Tanzanian janari-eskasiako denbora-tartea murrizteko, 70.000 lagunentzako mesedetan.

UNICEF-HAITI

UNICEFekin lankidetzan aritu ginen Haitirako funtsak biltzeko larrialdiko kanpaina. EROSKIK eta gure bezeroek egindako ekarpenekin, UNICEFi gutxi gorabehera 300.000 euro ematea lortu genuen. Erakundearen txosten baten arabera, higiene-kitak, ura edangarri bihurtzeko pastillak, botikak eta eskola-materiala banatzeko erabili zen, nagusiki, emandako laguntza.

UNICEFek 150 herrialde eta lurraldetan baino gehiagotan lan egiten du, haurrei bizirauteko eta garatzeko eskubidea bermatzeko, txiki-txikitatik hasi eta nerabegarora bitartean. Garabideko herrialdeetako txerto-hornitzaile nagusia da UNICEF, eta arlo hauetan guztietan egiten du lan: haurren osasuna eta elikadura hobetzea; ur-hornidura eta kalitateko saneamendua; oinarrizko kalitateko hezkuntza haur guztientzat eta babes biolentziaren, esplotazioaren eta GIB/IHESaren aurrean. Banakoen, enpresen, fundazioen eta gobernuen ekarpenekin finantzatzen da UNICEF.

MINUSBALIASUNAK DITUZTEN PERTSONEI LAGUNTZEA

LANKIDETZAN ARITZEN GARA MINUSBALIASUN FISIKOA EDO MENTALA ETA OSASUN-ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEN INTEGRAZIOAN ARITZEN DIREN ELKARTEKIN. LANKIDETZA HORIEK EMAITZA BIDEZ ETA GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKO EKITALDI LUDIKO-FORMATIBOAK BABESTUZ GAUZATZEN DITUGU.

DOWN ESPAÑA

Down Españarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu genuen, programa berri bat martxan jartzeko; programa horren helburua da elikadura-ohitura osasungarriagoak zabaltzea Down sindromea duten haur eta nerabeen artean, gizentasuna eta kolektibo horren beste zenbait osasun-arazo prebenitzeko. Down Sindromearen Espainiako Federazioak —Down España— Espainia osoko 83 erakunde elkartzen ditu, eta Down sindromearen erakunde erreferentea da Espainian. Hori dela eta, guk bultzatu dugun programa haur eta nerabe ugari iritsiko zaie. Gainera, aurrerago, tresna interaktibo hori www.sindromedown.net webgunearen bidez eskuragarri egotea espero da, mundu osoko gaztelania hitzunen elkarteek erabil dezaten.

COCEMFE

COCEMFE GKEa 1980an sortu zen, Espainian minusbaliasun fisikoren bat duten milioi eta erdi lagun bizi-baldintzak hobetzea sustatzeko eta defendatzeko. Espainia osoko 1.700 erakunde elkartzen ditu, eta horiek, halaber, autonomia-konfederaziotan, probintzia-federaziotan eta minusbaliasunak ordezkatzen dituzten estatuko erakundetan antolatzen dira (parkinsona, hemofilia, fibrosi kistikoa, arantza bifidoa...)

En Marcha aldizkaria du hedabide nagusi. Argitalpenak entzute handia du: 25 urte daramatza konfederazioaren adierazpen gisa, eta harrera ona du kolektiboko kideen artean. EROSKIren laguntza izan du hedabide horrek.

FEKOOR

Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinakundea (FEKOOR) elkarte biltzen dira minusbaliasun fisiko eta/edo organikoa duten pertsonen Bizkaiko 19 elkarte nagusiak, eta pertsona horien integrazio sozial osoa du helburu. Gaur egun, 6.800 kide baino gehiago ditu. FEKOORi lagunduen Bilbon egin zen Minusbaliotasuna duten pertsonen Mundu Eguna-oren ospakizunean.

BENE

Gaixotasun neuromuskularrak dituzten pertsonen eta haien familiakoen Bizkaiko elkarte da BENE. 2010ean, haien aisialdi integratzaileko programan parte hartu genuen, gaixotasun neuromuskularrak dituzten Bizkaiko haurren familientzako multiabentura kirolen bidez.

Proiektu berritzailea da, eta erakundeak aurkezten duen era horretako lehena. Aisialdi integratzaile eta terapeutikoko jarduerak ditu, guztiz ego-kituak, naturarekin harremanetan, eta gaixotasun neuromuskularrak dituzten haurren bizitzako etapak bereiziz, haien harreman sozialetarako beharrak kontuan izanik.

Jarduera horrek autonomia pertsonala eta gaitasun sozialak bultzatzen ditu — ezinbestekoak gurea bezalako harreman-gizarte batean—, eta haurrei eta familiei aukera ematen die bizitza oso eta autonomoagoa izateko, mugak muga. Horrez gain, aukera ematen du haur horien eta haien gurasoen harreman-lotura zabaltzeko; hala, aisialdi normalizatua izateko, ez hain mugatua.

Programa horrekin, aisialdi-eremuek —ireki zein itxiek— eragiten duten

arazo handiari erantzuten zaio; izan ere, ez dituzte kontuan hartzen gaixotasun neuromuskularrak dituzten pertsonen beharrak (gelaren edo bainugelaren egokitzapena, begirale edo antolatzaileen laguntza, gaitasun fisiko normala eskatzen duten jarduerak...).

EUSKAL GORRAK

Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioaren helburu nagusia da zerbitzu orokorrak betetzea, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte-mugimenduaren egitura indartzea. Hala, erronka nagusiak dira komunikazio-oztopoak desagertzea eta EAEn hizkuntza ofizial gisa onartzea zeinuen hizkuntza.

2010ean, Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioari lagundu genion, bai elkarte-mugimenduaren jardunaldian, bai 30. urteurrenaren ospakizunean.

EUGENIA EPALZA ESKLEROSI ANIZKOITZA ELKARTEA

Azken urteotan bezala, "Mójate-Busti zaitetz 2010" kanpaina parte hartu genuen. Orain dela 13 urte hasi zen ekimen hori, eta Euskal Herriko hainbat hondartza eta igerilekutan egiten da. Kolektibo horren arazoan inguruan herritarrak sentsibilizatzea du helburu.

"Mójate-Busti zaitetz 2010" kanpaina uztailaren 11n egin zen, gaixotasun sendaezin hori duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko errehabilitazio-zerbitzuak ordaintzeko dirua lortzeko. Urtero, gora egiten du ekitaldi horietan parte hartzen duten



pertsonen kopuruak, bai eta publikoki ekitaldia babesten duten pertsona ezagunenak ere.

ONCE

ONCEren Euskadiko Asteari lagundu genion EROSKItik, aurreko urteetan bezala. Ekitaldiaren helburua da minusbalotasunak dituzten pertsonen gizarte-integrazioarako mezua ezagutaraztea, eta topaleku bat eskaintzea erakundeari lotutako erakundeei eta herritarrei, oro har.

Irabazi asmorik gabeko erakundea da ONCE, eta Espainia osoko pertsona itsuen eta ikusmen-minusbalotasuna dutenen bizitza-kalitatea hobetzea du helburu. Erakunde soziala eta demokratikoa da, eta solidarioa itsutasuna ez den beste minusbalotasun batzuk dituzten pertsonekin ere.

EUSKADI PKU ELKARTEA

Laguntza eman genion fenilzetonuria eta metabolismoaren beste zenbait akats dituzten pertsonak ordezkatzen dituen erakundeari.

Fenilzetonuria edo PKU (ingelesez, phenylketonuria) hereditutako asaldura bat da, eta organismoaren kimikari eragiten dio. Behar bezala tratatzen ez bada, atzerapen mentala eragiten du. Zorionez, jaioberriei egiten zaizkien ohiko diagnostiko-probei esker, gaur egun garaiz diagnostikatu eta artatu daitezke asaldura hori duten umeak, eta inteligentzia normalarekin hazi eta gara daitezke.

GURE SEÑEAK

2010ean, helburu solidarioko zenbait ekintza antolatu zituen Gure Señeak elkarteak, Derioko familiek (Bizkaia) gaixotasun arraroak dituzten haurren

bizi-kalitatea hobetzeko izaten dituzten gehiegizko gastuak ordaintzeko dirua lortzeko. Sortu zenetik, gaixotasun horien eraginpeko familiei lagundu izan die elkarteak. Elkarterako dirua lortzeko hartu dugu parte ekitaldi horietan.

IFIMAV

Marqués de Valdecilla Prestakuntza eta Ikerketa Institutua da IFIMAV. Kantabriako Osasun Zerbitzuan, eta, bereziki, Marqués de Valdecilla Unibertsitate Ospitalean, ezagutza zientifiko eta teknologikoan ikertzea eta ezagutza hori sortzea bultzatzea du helburu. EROSKIK laguntza ekonomikoa eman du IFIMAVEk martxan duen meningitisari buruzko azterketak aurrera jarrai dezan eta bere helburuak bete ditzan.

EROSKI ETA EUSKARA

Euskararekiko dugun sentsibiltatea garbi ikusten da erakunde barruan, eremu kooperatiboko langileek hizkuntza hori erabiltzea bultzatzen baitugu, baina baita kanpoan ere; izan ere, hizkuntzaren normalizazioarako hainbat ekimen bultzatzen ditugu.

Urteetan egin izan dugun beazala, 2010ean ere Durangoko Liburu eta Disko azokari lagundu genion, sektore horretako azoka ezaguneri, alegia. Horrez gain, hitzarmen bat sinatu genuen Ikastolen Elkar-tearekin, ikastetxe horiek beren lurraldeetan antolatzen dituzten bost festei laguntzeko. 2010ean sinatu genuen hitzarmena, hainbat urtez lankidetzan aritu ondoren, eta hauek hartzen ditu barne: diru-laguntzak, EROSKI lekua uztea ospakizuna egingo den lekutik hurbilena dagoen hipermerkatuan festari lotutako materiala saltzeko, hotz-kamioiak uztea antolakuntzarako, eta zinta ematea ibilbidearen zati bat markatzeko.

Euskarari ematen diogun bultzadaren erakusgarri da EROSKI CONSUMER ere; izan ere, euskaraz 15.000 ale argitaratzen ditugu, eta, hala, kontsumo-arloan euskaraz gehiena irakurtzen den argitalpenetako bat da gurea. Aldizkariaren hizkuntza-dukia —azken hamabi urteetako euskarazko argitalpen guztiek osatua— baliabide ona da oso itzulpen automatikoko sistemak hobetzeko eta haietan trebatzeko, terminologia erauzteko eta itzultzaileen ikaskuntza eta trebakuntzarako.

Hori dela eta, ELHUYAR FUNDATIOAren lankidetzan aritzen gara, eduki hori guztia —hizkuntza-corpusa— modu publikoan kontsultatzeko Interneteko tresnak garatzeko.

2009ko urtarrilaz geroztik dago eskuragarri <http://corpus.consumer.es> helbidean, eta era guztietako bilaketak egiteko aukera ematen du. Hizkuntza ugariko tresna da beraz, kontsumo-arloko terminoen hiztegi gisa erabil daitekeena.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN BIZKAIA MAITEA LEHIAKETA

Badira urte batzuk Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Maitea aldizkariak antolatutako lehiaketa hori babes-ten dugula. Haur eta gazteentzako lehiaketa bat da. Parte-hartzaileek beren talentua erakuts dezakete, eta nahi duten diziplinan erakutsi (pintura, argazkilaritza, arte digitala eta kontakizun laburrak), betiere lan hori ingurumenari eta gai horri buruzko gizarte-kontzientziarioari lotua bada.

OMENALDIA SEGUNDO OLAETARI

Segundo Olaetari Bilboko Arriaga antzokian egindako omenaldian parte hartu genuen. Bizkaitar musikari eta koreografo horren oroimenezko ekitaldia Olaeta Balleta Elkar-teak antolatu zuen, eta Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ere jaso zuen.

ARTXANDARAKO IGOERA

2010ean, Artxandarako lehen igoeraren babesleeta bat izan ginen. El Correo egunkariak antolatu zuen, urrian. 4.500 mendizale inguru izan ziren lehen deialdi horretan, eta ondo bete zituzten igoeraren 323

metroak. Izen-emateekin eskuratutako dirua (11.000 euro baino gehiago) Bilboko Erruki Etxea egoitzari eman zitzaion.



2010EAN LORTUTAKO SARIAK ETA AINTZATESPENAK



FSC International Partner Award saria

KONTSUMO ARDURATSUAREKIKO KONPROMISOA

EROSKIk FSC International Partner Award saria jaso zuen, FSC produktuak —fabrikazioan eta merkaturatzean basoetako baliabideak arduraz erabiltzea bermatzen dute— saltzeko eta dibulgatzeko dugun konpromisoagatik.

ENERGIA JASANGARRIEN ALDE

2010ean, Europa Energia Jasangarria kanpainaren laguntzaile ofizial gisa onartu zuten EROSKI; energia jasangarriak sustatzeko Europako Batasuneko ekimenik handiena da kanpaina hori.



"Urrezko Galburua" sarirako accesita

EROSKIREN ELKARTASUNA, FESBALEK SARITUA

Espainiako Elikagai Bankuen Federazioak (FESBAL) ematen duen "Urrezko Galburua" sarirako accesita lortu zuen EROSKIK, elikagaiak biltzeko kanpainen bidez behar handiena dutenei eman zien laguntzagatik.



Telefónica Ability Awards

TELEFÓNICA ABILITY AWARDS-EKO FINALISTA

Telefónica Ability Awards-eko finalera iritsi zen EROSKI. Balioa sortzeko katean minusbaliotasuna duten pertsonak sartzen dituzten negozio-eredu jasangarriak aintzatesten dituzte sari horiek.



ÑH sariak

EROSKI CONSUMER, PROIEKTU SARITUA

2010ean, diseinuaren eta Interneten ÑH sarietarako accesita lortu genuen, bai eta AMETICek —teknologia berrien enpresen patronala— ematen duen ingurumen-gaietako webgune onenaren ohorezko saria ere.